

ITZAIN ▶ XABIER MENDIGUREN

Paretari begira



Kittoa. Bukatu da uda. Iritsi da betiko martxara bueltatu beharra. Eta etorri da atzera HITZA ere. Batek baino gehiagok izango du pena, oporrei ez diela nahi adinako zukurik atera, egin gabe utzitako planen damua barrenean hazka. Tira: ez ibili kexada, ez dago gabonen edo datorren urtearen zain egon beharrik-eta; bartzuetan nahikoa da arratsalde bat libre hartzea eta irudimen pixka bat, barkazioetako moduko planak egiteko. Horrelako bat

proposatuko dizuet nik gaur.

Barne-turismoa deitzen zaio gure herrialdearen barruan egiten dugunari; askotan izaten baitira txokoak ezagutzen ez genituenak eta gero, ikusitakoan, benetako poza ematen digutenak. Horrelako zerbait gertatu zait niri aurten Seguran. Segurako kaleak etxe dotore ugari ditu erakusteko, noski, baina ni uda honetan ustekabearen harrapatu nauena, herriko plazan Joxemari Telleriak pintatu duen murala izan da: ze gauza ederra! Koloreak, konposizioa, ispi-luaren ideia hori... Ez dizuet kontatuko: hobe zuek joaten bazarete.

Horma horren haritik, pentsatzen jarri naiz, badituela Telleriak mural gehiago ere, polita askoak, Goierriko bazterretan han-

hemen eginak. Adibidez, Ordiziako Oiangu taberna barruan bat, eskuin muturrekoek jarritako bonbak lehengoa txikitu ondoren berritua; beste bat Beasainen, Erretiratuak Etxeko sarreran; eta, Beasaindik atera gabe baina ezkutuxeagoan, Dendarien Elkartean, Oriamendi kalean. Ez dut ikusi baina, esan didatenez, Zaldibiako futbol zelaian ere margotu omen zuen hango parreta, bertako gazteen laguntzaz.

Ez dakit Historiak inoiz aitortuko duen nolako gizon jantzi, argi, eskuzabal, fin eta jatorra izan den Joxemari Telleria. Etorkizunaren zain egon gabe, guk geuk oraintxe daukagu aukera, haren zenbait obra begibistan gozatzeko, batetik, eta urtetan egingadako lan isila eskertzeko, bestetik.

GUTUN@K ▶

Oiangu-lkengu, zeinen ondo!

HITZAREN bidez jakin nuen Oiangu golf zelai bat eta itxurazko metralleekin jolasean ibiltzeko beste bi zelai ireki behar dituztela. Emaztea eta bioi golfa gustatzen zaigunarekin! Orain artean Niza, Paris edo Biarritz bezalako lekuetan soilik ibil gitezkeen kirol honetan. Bi hilabeteko udako oporretan zein Gabonetan joaten ginen. Orain hemen izango dugu praktikatzeko aukera, xirimiriak uzten badigu behintzat.

Golfa gustatzen zaionari Klubean izena emateko gonbitea egiten diot. Bikaina izango da, lan aste gogorren ondoren golfean erlaxatu ahal izatea, ingurune pribilegiatu batean, mendian eta jende pilaketarik gabe.

Niri pertsonalki, eta Beasaingo enpresari izanda, beti pena eman izan dit Ordiziako Udalak Oiangu alde batera utzita edukitzea. Ez zegoen aukerarik itxurazko jatetxe batean afaltzeko, ez dago garbitasun zerbitzurik eta ezta komunik ere. Oiangu ez dago aktibitatekerik, ezta dibertimenduzko parkerik ere. Enpresariok izan behar dugu beti buruari bueltatik eman eta poltsikotik dirua jarri behar dugunak Oiangu behar bezala jartzeko. Oiangu gaur egun duen itxurak pena ematen dit. Udan behin baino gehiagotan joan izan naiz semearekin eta askotan atzera egin ere bai. Segituan jendez betetzen da eta sarritan bertako ikuskizunak hirugarren mundukoa dirudi. Indio eta ijituen kanpamenduak dirudite, jendea etetik eramandakoa janez, askotan mahai-tresnarik gabe eta inongo irabazirik utzi gabe.

Nik nire semearentzat ez dut horrelako ikuskizunik nahi. Espero dut laster eraman ahal izango dudala Ikengura Pit-Buleko tiro zelaian bere fantasiak errealtate bihurtu ditzan. Bitartean emazteak eta biok jatetxean mokadu eder bat egin ahal izango dugu.

ROBERTO L. R.

(36.483.526) ▶ BEASAIN

ASTEKO IRUDIA ▶



IZALGO GAZTE ASANBLADA

Zazpigarren Gazte Eguna ospatu dute Idiazabalen

Erredakzioa ▶ Idiazabalgo Gazte Asanbladak antolatuta, festa egun berezia ospatu zuten herriko gazteek, VII. Gazte Eguna izan baitzen atzokoa Idiazabalen. Ohitura den moduan, hamaiketakoarekin hasi zuten jai eguna, gero, herrian barrera poteoa egiteko. Laurak aldean, Gaztetxeko arkupean bildu eta indarrak berritzeko moduko bazkaria egin zuten. Arratsaldean, altxorraren bila ibili zi-

ren herriko kaleetan. Iluntzean poteo berri bat egin zuten. Segurako trikitilariak lagunduta. Gauean, bertso afaria eta trikitixa izan zituzten. Gazte Egunari bukaera emateko, lasterketa berezi bat egin zuten. Antolatzaileen esanetan, «aurtengoan modalidade berriari; besteetan gantzontzilo lasterketa egiten bagenuen ere, aurtengoan tanga lasterketa izan da». IZALGO GAZTE ASANBLADA

iragarki laburrak ▶

LAN-POSTUAK

Correos. Langileak behar ditu honako lanetarako: banaketa, sailkapena eta bezeroari arreta. Informazioa doan: 943 22 46 85.
Suhiltzaileak. Hurrengo deialdiak: Gipuzkoan. 1.400 euro hilean. Bi

lanegun astean. Azken plazak. Informazioa doan: 943 22 46 85.
Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan: 943 22 46 85.
Administrari laguntzaileak.

Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan: 943 22 46 85 telefono zenbakian.

Haur eskola publikoak. Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia astelehenetik ostiralera. Informazioa doan 943 22 46 85 telefono zenbakian.
Laborategiak. Plaza libreak.

Teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurlaritza. Informazioa doan 943 22 46 85 telefono zenbakian.
Administrari laguntzaileak. Plazak libre udalebeetarako. 35 orduko asteak. Informazioa doan 943 22 46 85 telefono zenbakian.